



ARROITA, Izaro; OTAEGI, Lourdes (arg.)
Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. Kontaera historiko-politikoak

Bilbo : Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua, 2015
 273 or. : ir. ; 24 cm
 ISBN: 978-84-9082-290-6

Aldatzen den gauza bakarra iragana da

“Laster laurogei urte handi igaro izango dira 1936ko uztailetik eta halere, orduko gertaeren oihartzunak bizirik dirau gure ortze-muga historiko, politiko eta kulturalen” esanez hasten da hona dakargun *Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontaera historiko-politikoak* liburua. Lerro batzuk beherago beste hau dio:

Espainiako Gerra Zibilak Hego Euskal Herriko gizartearen oroimen kulturalen izandako errepresentazioa aztertzea da gure monografiaren ardatza, oinarri gisa oroimenaren lekuen sinbolizazioa hartuta, eta lekukoaren adierazpenen azterketarako Memoria Ikasketek garatu dituzten baliabide metodologikoak erabiliz.

Hara esaldi bitan, eta liburuaren lehen orriari buelta eman orduko, lanaren laburpena eginda edo behintzat asmoak zehatz azalduta.

Izan ere, iruzkin hau idazten dihardudan honetan, 80. urtebetetzea bete betean den 2016an, hainbat eta hainbat ekintza instituzional eta elkarte memorialistek antolatutako artean gaudela, ezinbestekotzat jotzen dut lan honetan bilbatzen dena, hau da, hausnarketa akademikotik egindako ekarpena. Borondaterik onenez osaturiko omenaldiak, errepresentazioak, hitzaldiak, erakusketak eta abar izan ditugu eta oraindino izango ditugu, baina nago hauek askori kopiaren kopiaren kopiari gertatzen zaiena gerta dakiekeela, zenbat eta sarrigo egin originalaren antza galduz joaten direla eta berezkoa ilundu. Honekin esan nahi dudana ez da besterik memoriarik onena eta “benetakoena” iturrietatik hurbilen dagoena dela baino, eta horretan akademiak hitza hartu behar duela. Honekin ez dut esan nahi aditu eliteen kontua bakarrik izan behar denik honetan jarduteko ardura bakarra, ezta gutxiagorik ere. Izan ere, memoriarena eztabaidara ateratu duten elkarteetan lana ezinbestekoa izan da, eta izaten dihardu, bigarren hamarkadara heltzen dagoen mugimendu hau sortzen, indartzen eta zabaltzen. Baina demokratizatzea, hau da gizarteratzea, ez da nahikoa, memoria pentsatu eta birpentsatu ere egin behar da.

Eta pentsatze horretan lan teorikoak zer esan handia izan behar du. Horregatik, iruzkintzen ari naizen lan honetan ez zaizkit txikiak begitandu, hasi hitzaurretik eta, egile baikoitzak landutako alorretan hemen eta kanpoan memoriaren fenomenoaren aurrean teorizatzen ekin deutenen ekarpenak aipatzea eta aurkezturiko lanetan uztartzea.

Lanak multzoka sailkatzearen, lehen bost artikulua historia lanak edo gerrako testigantza zuzenen gainekoak dira, gainerakoak, berriz, kritika literario, musikal eta zinematografikoari atxikituak eta aztertzen dituzten lanak gerratik hamarkadetara buruturikoak dira.

Liburuaren hitzaurrea, Izaro Arroita eta Lourdes Otaegi editoreek sinatua, lanaren aurkezpen soila baino gehiago da. Oinarri bibliografiko zabal eta sendoa erabiliz, Memoria Historikoaren jatorria eta honen bilakaera zein izan den deskribatzeaz gain, mugimendu honek gurean izan duen garapena eta euskal ikasketetan izan duen presentzia azaltzen dute. Mugimendu globala den Memoriaren hau gure eremu lokalean zelan garatu den Gerra Zibilaren memoriaren esparru zabalago batean. Hau da, Mundu mailara zabaltzen den Memoria

Historikoaren mugimendua Espainian Gerra Zibilaren memoria lantzerako kokatu da neurri handi baten eta horren barruan sartu behar dugu, bere berezitasun guztiekin, gurean garrantzen ari den memoriarena. Gorago diodan moduan, liburua dakarren ekarpenik erakargarrienetakoa begitandu zait niri, akaso, zabalean aztertzen duelako gaia eta ez, gainerakoek legez, kasu konkretu eta zehatzetara zuzenduta.

Hitzaurrearen ondorengo lehen ekarpen biak historiografiaren diziplinakoak dira eta neurri baten kontrajarriak. Lehenengoan, Josu Iñaki Erkorekak Manuel Irujo buruzagi jeltzalearen gerra zibileko ibilbide politikoaren azterketa dakargu, lupa jarri Justizia ministerioan eta lehenago Gipuzkoan politikari nafarrak erakutsi zuen legea eta norbanakoaren eskubideak errespetatzeko ahaleginean. Erkorekaren nahia da, bere lanari jarri dion izenburuak dioen legez (*Gerraren humanizazioa*), Irujoren jarduna aztertuz, gerraren ankerkeriaren barruan jeltzaleek gerra humanizatzeko erakutsi zuten borondatea eta horretan izan zituzten lorpenak erakustea.

Bigarren ekarpen historiografikoa Ludger Mees irakasleak izenpetutakoa da. Kasu honetan, jeltzaleen eta, orokorrean, abertzale guztien, gerraren gaineko irakurketak ditu aztergai. Horretara, gerrako pasarte garrantzitsu batzuk hartuz (Gernikako bonbardaketa, Matxitxakoko bataila, Santoñako Ituna...), pertsonaia historikoak (Jose Antonio Agirre, Jose Ariztimuño *Aitzol*, ...) ospakizunak (Gudari Eguna...), eta abar, hasi jeltzale historikoengandik eta ETAraino nazionalisten memoria kolektiboak guzti horien gainean egin dituen interpretazioak kritikatzeko alderatuz nazionalisten bertsioa historiografia akademikoak egin duenarekin.

Erkoreka eta Mees-en lanak neurri baten kontrajarriak direla badiot, batak Irujo buruzagi jeltzalearen lorpenak aipatzen dituelako eta, besteak, berriz, abertzaleen gerraren irakurketari kritika egiten diolako da. Edozein modutan ere, bata zein bestea, ekarpen interesgarriak ez ezik beharrezkoak direlakoan nago.

Liburuko hirugarren lana Joxean Fernández, Nantesko Unibertsitateko irakasle eta Euskal Filmategiko zuzendariarena da. Bertan, nolabait, Euzkadiko Jaurlaritzak Euskadin eta erbestean ekoizti zituen pelikulak eta Franco diktadorea hil ostean Euskal Herrian gerra zibila eta ETA gai hartuta egin ziren lanak aztertu ditu. Gerra denboran Jaurlaritzak Euskadin ez zuen luzean iraun eta hori gehi gure orduko tradizio zinematografikoaren urria kontuan hartuta, ez da harrizkoa, beste leku batzuetan ez bezala, hemen hain pelikula gutxi ekoiztea 1936 eta 1937an. Hala eta guzti ere, garai hartan pelikula baten batzuk egin ziren gerrak gurean izan zituen partikularitasun batzuk erakutsiz, kasurako erlijio katolikoak errepublikanoen artean jokatu zuen papera. Fernándezek aztertzen duen bigarren aldia diktadura osteko euskal zinematografiarena da, ez bakarrik Trantsizio garaikoa, ez bada ere XXI. mende hasierara artekoa baina, beti ere memoria historikoarekin zer ikusia lukeen filmografia.

Liburuko laugarren ekarpena Inazio Mujika Iraolarena da. Bertan, Mujikak gerra aurreko euskal kulturaren eta gerraren beraren ikur argienetakoa dugun *Lauaxeta* poetak kartzelan idatzi zituen olerkiak finkatzeaz dihardu. Izan ere, Estepan Urkiagaren poemok bi-hiru aldiz argitaratu badira ere, artean berak Mujikak *Hegats* aldizkarian, oraindino ez dugu behin betiko bertsio bat. Eta hori poemok *Lauaxetarenak* izanda.

Detalle honek, gure poeta handienetako baten azken lanak oraindino ganoraz argitaratu gabe egoteak, berak erakusten du azken hamarkadetako euskal kulturaren XX. mende hasierako jardunarenganako begirune eskasa. Mujikari berari entzuna diot gure poeta nazionalistako baten lanok egoera honetan egotea beste herrialde batzuetan pentsaezina litzatekeela. Horretarako ere izan behar da Memoria Historikoa, garai bateko lorpenak gaur egunera ekartzeko.

Pio Perez Aldasororen lanean, *Gerlariak idazle...*, Memoria Historikoa aztergai duen liburu baten, ez zait ekarpenik txikiena begitandu bere artikulua ontzeko erabili duen iturrietako bat, Aita Zavalak sortu eta urteetan elikatu zuen Auspoa bilduma. Izan ere, gure kultura tradizionalaren ahozko memoria inon gorde bada, eta zelan gorde ere, Aita Zavalaren lanean gorde da. Baina bikaintasun horrek ez du esan nahi artxibo paregabe hori erabili izan denik, merezi duen neurrian behintzat, lan akademiko asko egiteko. Gure aditu erdaldunek,

eta euskaldun batek baino gehiagok, historia lanetarako adibidez, euskarazko iturriak existituko ez balira legez jokatu izan dute sarritan.

Perez Aldasorok 6 kontakizun hartu ditu gerrako testigantzak eta biografiak direnak, baina lehen pertsonan idatzita egonarren, eta horregatik protagonisten gertakariak bertan kontatzen direnak, testuotan irakurri daitekeena 36ko gerran parte hartu zuten askoren testigantza dira. Idatziok irakurrita gizaratearen zati handi baten bizipenez jabetu gaitzke, orduko isla direlako.

Ondoren datorren ekarpena Lourdes Otaegik Mikel Laboaren *lekeitioei* eskainia da. Bertan, Laboak gerraren bere oroitzapen pertsonaletan oinarriturik sorturiko kantuek memoria kolektiboa osatzen izan duten garrantzia azpimarratzen du. Hori frogatzeko Otaegik herriko bihurtu diren *Baga Biga Higa* eta *Haika mutil*. *Gernika* lanak aztertu ditu, interpretatuz, gainera, Auschwitz ondoko *esanezina* den esperientziaren adierazpentzat.

60ko hamarkadan sortu zen *Ez Dok Amairu* talde berritzailean ibilia, Laboak, garai hartako arte plastikoetara eta kultura osora haize berriak ekarri zituen Jorge Oteizaren irakaspenak jarraituz, kantu tradizionala eta abangoardien berritasuna uztartzen ahalegindu zen Pasaiaiko abeslaria John Cage abeslariaren bide esperimentalak jarraituz. Laboaren kasuan, iraganean gertatua tradizioko abestiak molde berrietan eta lan berriak modu apur-tzaileetan sortuz eta erakutsiz gauzatuko du, Memoria ahalegin sortzailea eta eguneratzailea.

Zazpigarren ekarpena Mari Jose Olaziregiren da, *Hain hilik, hain bizirik*. Bertan, Harkaitz Canoren *Twist* eleberria du aztergai, nobelagilearen ibilbide literarioan euskal historiako gertakari lazgarri baten oinarritutako lehen lana, Lasa eta Zabalaren desagerpena, tortura, heriotza eta gorpuzkinen aurkikuntzan hain zuzen ere.

Auschwitz eta gero idatzi ote zitekeen Theodor Adornoren galderaren bidetik dator liburua eta Olaziregin azterlana. II. Mundu Gerra ostean Adornok ia galdetu orduko hasi baziren Primo Levi eta beste batzuk esperientzia hura kontatzen, gure kasuan ere holako zerbait gertatu da. Olaziregik nobelatik bertatik hartutako pasarte bat aipatzen du: “Sublimatu al daiteke artearekin tortura? Gaingitu al daiteke artearen bidez horrorea?” Eta galdera bi hauei honela erantzuten die Olaziregik: “Bistan denez, eleberriak berak ematen du: batzuetan literatura bera ez da nahikoa baina, hala ere, ahalegindu egin behar du, kontatzea beharrezko baita erredimitzeko, sendatzeko”.

Olaziregik Canoren lana Hego Konoan eta Espainian postmemoriako belaualdiak, gerran parte hartu zutenen ilobek, idatzitako nobelagintzekin alderatu du eta lehenengoarekin gertutasun handiagoa atzeman dio bigarrenarekin baino. Esaldi honekin bukatzen da artikulua: “Literaturak duen garrantzi funtsezkoa isildua izan denari ahotz emateko garaian, eza-gutzatik bakarrik, iraganaren onarpenetik bakarrik eraikitzen baita etorkizuna, eta nola ez, bizikidetzat”.

Izaro Arroitarren *Gudaria memoria gune gisa Ramon Saizarbitoriaren nobeletan* lanean gudaria nola irudikatzen den aztertzea da helburua. Laburpenean esaten den legez, gerrari buruzko sinbolo abertzaleen gaineko irakurketak bide emango dio Saizarbitoriaren obretako memoria kritikoak azaleratzeko.

Saizarbitoriaren lanetan sarritan azaltzen dira gudariak eta baita abertzaleen memoria ofizialaren kritikak ere azpimarratuz gudarien duintasuna. Gerran porrota sufrituarren, une hartan gudariak egin behar zutena egin zutela behin eta berriro errepikatzen du Saizarbitoriak, “galtzaile ez-heroiko baina duinaren sinboloa delako gudaria” Arroitarren hitzetan.

Mikel Ayerbek sinatua da ondorengo lana, *Iban Zalduaren ipuingintza: guda eta gatazka*. Bertan, Iban Zalduaren lanetan euskal gatazkaren presentziaren garrantzia azpimarratu nahi du egileak eta, honekin batera, gudarien gaiak Zalduaren ipuingintzan duen lekuaz jabetzeko *Gerra Zibilak* narrazioa sakon aztertzen du.

Hamargarren lana Daniela Bisterrena da, *Espainiako Gerra Zibila eta frankismoa jasatea emakume gisa*... Bisterrek bere lanean Montxo Armendarizen *Silencio roto* eta Vicente Arandaren *Si te dicen que caí* filmak aztertzen ditu genero ikuspegitik. Izan ere, emakumea nekez izan da protagonista kontakizunetan eta horregatik egilearen helburua bi pelikuletan biktima emakumezkoei eman zaien papera aztertzea izango da.

Alexander Gurrutxagaren ekarpenaren izenburua *Gernika-Berlin. Berlinen balio sinbolikoak euskal poesia garaikidean*. Egileak honetara azaltzen du bere asmoa,

“[...] euskal poesia garaikidean agertzen den espazio sinboliko bati begiratuko diogu: Berlin hiriarri, hain zuzen. Berlingo horma erori zenetik 25 urte bete berriak direnean, esan dezakegu Berlin euskal memoria-lekua ez den arren, espazio sinboliko esanguratsua dela gure memoria historikoa jorratzen duten literatura-lanetan eta, modu batera edo bestera, sinbolismo utopiko eta alternatiboaren jabe dela”.

Azken lana Gorka Merceroren *Juan Luis Zabalaren Agur*, Euzkadi: *modernitateko esentzia-egarri aseezin* da. Nazioa da Zabalaren nobelaren gakoa eta horretaz dihardu Mercero baina erantzun zehatzik eman gabe. Bakarrik “Zer gara gu, nor gara gu? Erantzun berriak behar dira galdera zaharretarako”. Eta horri begira, bide berriei begira, jartzen gaituela Zabalaren *Agur*, *Euzkadi* nobelak diosku Mercero.

Gerra denbora eta gerra oste goiztiarreko lan gutxi aztertzen dira liburuan. Honen arrazoiatariko bat hitzaurrean aurkitu dezakegu Joan Mari Torrealdairen hitzetan dioenean zentsuraren kaltea, desegin zuenaz gain, jaiotzen utzi ez zuenera ere heltzen dela. Baina nago, Inazio Mujikak aurkezten dituen *Lauaxetaren* kartzelako poemen antzera, badirela, ez asko seguraski baina hala eta guzti ere, garai haietan euskaraz idatzi ziren obrak. Kasurako egunotan gure artxiboan gorde eta ikertzaileen eskuerara jartzeko eman dizkiguten Ander Arzelusek kartzelan, besterik ez eta, komuneko paperean idatzi zituen antzerki lan batzuk.

Horregatik, liburuan ez da gerra zibilean euskaraz sorturikoa bakarrik hartzen, diktaduran eta Franco hil ostean, demokrazian, gatazka hari loturiko lanak eta sortzaileak ere kontuan hartzen dira, eta zuzena deritzot jardunaldien antolatzaileen erabaki hau.

Izan ere, European eta mundu osoan II. Mundu Gerra ostea guda aurreko aldiarekin hauste bat izan bazen, gurean apurte hori gerra zibilean gertatu zen, hainbat historiagileen aburuz 1939an hasi zen mundu gerraren lehen borroka gunea. Hala eta guzti ere, Hego Euskal Herrian behintzat, historiaren mugarri ukaezin bihurtu zen borroka hartatik ez ginen garaile atera eta gerraren etenak gutxienez 60ko hamarkadaraino iraun zuen, belaunaldi sozial eta kultural berri bat sortu zen arte.

Orduan, baina, ermetzen hasi zen belaunaldi berriari borroka bikoitza egitea egokitu zitzaion. Batetik, gerraren ondoren nagusitu zen eta indarrean zegoen frankismoari eta, bestetik, gerrak berak mendearen hartu zuen ordura arte euskal kultura kultura egiteko izan dugun ahalegin handienari, ia-ia sortzen hasi orduko lurra jota gelditu zenari. Hau nahiko ez eta, gurean azken demokrazia denboran, oraintsura arte, ez da bakerik izan. Hau da, Hego Euskal Herrian hamarkadatan zehar borrokan ekin izan deutzagu, benetan edo metaforikoki elkarri tiroka.

Gure memoriak baditu, beraz, bere partikularitateak. 1937an Gernikan, arbola ez gainerako guztia erretzeaz gain, *Lauaxeta* atxilotu zuten eta hile bi baino lehenago fusilatu, eta, urte hartan bertan, abuztua amaitu baino lehen, Santoñan, gudariak italiarren aurrean errenditu zirenean, geroak erakutsiko zuen moduan, euskal kultura jaso bat egiteko ahalegina erautsi zen. Hogei urte itxaron behar izan genituen euskal kultura etxeko zulotik eskolara ekartzeko bigarren ahalegin handia ereiten hasteko unea, gaur, bere aje guztiekin, asko edo gutxi, loran ikusi dezakeguna.

Irten berriak gara 1936an biztu eta ia gaur arte gurean kateatu diren borroka politiko-militar-kulturaletatik eta oraindino gure zauriak miazkatzen dihardugu. Iban Zalduek dioen bezala “Iragana ez baita oraindik Historia bihurtu gure artean (eta are gutxiago iragan hurbila, azken berrogei urte hauek, eta, agian, ezta Gerra Zibiletik gaur egunera luzatzen den garaia ere)”.

Honekin lotuta dakart liburu honetan irakurri dudán Félix de Azúaren esaldi hau: “Al-datzen den gauza bakarra iragana da”. Bizirik dagoenaren seinale, edo bizirik mantentzen dugunaren erakusgarri. Horregatik, axola digulako, gugan eragina duelako, gure egunerokoan, batera edo bestera, eragiten digulako deritzot interesgarria eta gehiago esku artean dudán lan hau.

Are gehiago, salbuespenak salbuespen, gure kultura jasoak tradizio literario eta akademiko laburra du eta gure oinarri idatzizko sendoenak benetan berantiarrek dira, hogeigarren mende azkenetakoa. Baina ez bakarrik. Gerrara orduko ere izan ziren ahaleginak, borroka zibil hartan Euzkadiko Jaurlaritzak instituzionalizatu nahi izan zituenak. Gorago esanda legez, *Lauaxetaren* fusilatzeak irudika lezake belaunaldi horren amaia, nahiz eta, atezuan izanda ere, 60ko hamarkadaraino iraun.

Aurreko belaunaldi honek, *Lauaxetak* bera, *Lizardik*, *Aitzolek*, *Orixek* eta bestek osaturikoak, badu zer oroit. Eta ez egin zuen ekarpen kulturalengatik bakarrik. Historiagile naitzen aldetik, eta ez literatura eta arte kontuetan aditua, esango nuke euskal kultura ezer bada, neurri baten behintzat, 1937ko ekainaren 25ean Gasteizko Santa Isabel hilerrian *Lauaxetari* hormaren kontra egotea egokitu zitzaizolako dela, eta ez fusilatze pelotoiari aginduak ematen.

Beraz, ezinbestekotzat deritzot urteon memoria jorratzeari. Kotxean aurrera egiteko atzera begirako ispiluak beharrezko diren antzera, gure ibilian ere iraganaren ezagutza ez okertua beharrezkoa dugulako eta horretarako formulazio teoriko eta praktikoa nahi eta nahiezkoak ditugulako.

Iñaki Goigana



GAGO ANTÓN, Egoitz
La contribución social a la paz en Euskadi

Madrid : Catarata, 2017
 179 p. ; 21 cm
 ISBN: 978-84-9097-331-8

Este interesante libro del profesor Egoitz Gago Antón viene a llenar el relativo vacío que hay, en relación al análisis del papel jugado por los movimientos sociales pacifistas, en la literatura sobre el conflicto vasco y el final de la violencia política. El libro constituye una contribución valiosa al estudio y análisis de las aportaciones que los movimientos pacifistas del País Vasco realizaron con el fin de acabar con la violencia política en Euskadi.

El objetivo del libro consiste en estudiar los motivos por los que la violencia política ha desaparecido en el País Vasco. La tesis principal sostiene que “uno de los motivos, quizá el más importante, es la acción social que Gesto por la Paz y Elkarr/Lokarri han desempeñado durante los últimos 30 años” (p. 31).

¿Cómo puede probarse una tesis de este tipo? No es sencillo. La forma principal en que se defiende que los movimientos pacifistas contribuyeron a la desaparición de la violencia política en el País Vasco es la transformación de las percepciones de la sociedad vasca sobre el conflicto, al promover una forma de entender el conflicto no basada en la confrontación y explícitamente contraria a la violencia (Idem.). Por tanto, la contribución principal del movimiento social pacifista a la desaparición de la violencia en Euskadi consistió en batallar contra el enfoque que concibe el conflicto político vasco como esencialmente basado en la confrontación (muchas veces violenta), heredada de la época de la